



Espediente zk.: 2021SZUZ0023 **Erreg. data:** 2021/01/28
Erreg. zk. : 001474
Gaia: .ZITZ KULTURA ELKARTEA: HITZARMENA 2021
Eskatzailea: ZITZ KULTUR ELKARTEA **NAN(IFK):** G75110890
Kokalekua: ERRENTERIA **Dekretu zk.:** 2021/2023

JAKINARAZPENA

Jakinarazten dizut, Zinegotzi Delegatuak 2021ko uztailaren 26ko datan, ondorengo dekretua eman duela:

AURREKARIAK

ZITZ KULTUR ELKARTEAK jarduerak sustatzen ditu, herriaren kulturen nahiz herriaren izen onaren hedapenean eragina dutenak.

Udalak ekintza horiek interesgarritzat dituen heinean, bultzatzea erabaki zuen, diruz lagunduz. Helburu horrekin, aurtengo aurrekontuan partida bat sortu zuen elkartearen izenarekin.

Eztena Jaialdiaren antolaketa

Errenteriako Udalaren eta elkarte onuradunaren artean hitzarmen bat sinatzea da alde bakoitzak dirulaguntzaren inguruan hartzen dituen konpromisoak zehazteko tresnarik egokiena.

ZITZ KULTUR ELKARTEAK urterako proiektu bat aurkeztu du 24.000 euroko aurrekontua duena.

Espedientean jaso dira beharrezkoak diren txosten guztiak, diru-laguntza ematearen aldekoak:

- Kultura teknikariak 2021eko maiatzaren 18an emandako txostena.
- Udal aholkulari juridikoak 2021ko uztailaren 21ean oniritzia eman du. Txosten horretan jasotzen da, besteak beste, dirulaguntza aurreikusia dagoela dirulaguntzen Plan Estrategikoan eta onuradunarekin sinatuko den hitzarmena araubidearekin bat datorrela.
- Kontu-hartzaileak, 2021ko uztailaren 26ko datan espedientea fiskalizatu du.



ZUZENBIDE OINARRIAK

38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntza Orokorrei buruzkoa.

887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, 38/2003 Dirulaguntza Orokorrei buruzko Legearen Erregelamendua.

Errenteriako udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantza (2015eko abuztuaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala -150 zk.-).

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatezak eskuordetu dizkidan eskumenak baliatuz, eta aholkulari juridikoak espedientean jasotako dekretu proposamenari emandako adostasunarekin.

Honen bidez,

EBATZI DUT

- 1.- ZIZT KULTUR ELKARTEAri 24.000 euroko diru-laguntza ematea urtean zehar bere proiektua gauzatu dezan.
- 2.- Onespena ematea Errenteriako Udalaren eta ZIZT KULTUR ELKARTEAren artean hitzarmen bat sinatzeari, bertan zehazteko alde bien konpromisoak diru-laguntza honekiko.
- 3.- 24.000 euroko gastua konprometitzea, indarrean dagoen aurrekontuko 10830.481.15.334.10 partidaren kontura, AD2396-2021.
- 4.- Dirulaguntzaren ordainketa horrela egingo da:
 - 21.600€ euro, hitzarmena sinatzen denetik.
 - 2.400€ euro, proiektua gauzatu eta horren justifikazioa aurkeztu ondoren, betiere Udalak justifikazioa nahikotzat jotzen badu (sail edo azpisaileko teknikaria, Kontu-hartzailea eta dagokion Zinegotzi Delegatua).
- 5.- Ebazpen hau jakinaraztea onuradun elkarteari eta ezagutaraztea Ogasuna eta Garapen Ekonomikoa Sailari. Era berean, Dirulaguntzen Datu Basera (BDNS) bidaltzea eta udalaren gardentasun atarian argitaratzea.



Erabaki hau behin-betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Dena den, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakezu, edota egoki deritzozun beste edozein errekurtsu.

NON: dagokion Administrazioarekiko auzien epaitegia.

EPEA: bi hilabetekoa, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

Idazkaria ordea

Begoña Bueno Barranco



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU54f42c18-5c4f-4129-9b94-3a0c1c5e3c53**

Dokumentu elektronikoko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatze, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021SZUZ0023-JAKINARAZPENA euskaraz/NOTIFICACIÓN euskera (ZIZT KULTUR